

Aurrerapena ekarriko du iraunkortasunean eta eraldaketa digitalean

EROSKI-K ORDAINAGIRI DIGITALA ATERA DU

- EROSKIren aplikazioaren bertsio berriak dator
- Aplikazioaren bitartez erosketaren ordainagiria kontsultatu eta deskargatu ahalko da, paperezko tradizionalaren alternatiba gisa
- EROSKI clubeko bazkideek, hala, eskura izango dituzte beti azken urteetako ordainagiriak sakelakoan nahiz ordenagailuan
- Horri esker, papera aurreztu ahalko da, eta, beraz, ingurumenean paperak duen eragina gutxitu
- Horrez gain, dendan inprimatutako ordainagiriei ez dute bisfenol A-rik

Elorrio, 2019ko apirilaren 15a.- [EROSKI](#)k hemendik aurrera erosketen ordainagiriak kontsultatzeko eta deskargatzeko aukera emango du momentuan, eta ordainagiri inprimatu tradizionalaren alternatiba izango da.

Banaketa kateak EROSKI aplikazioa gaurkotu, eta zerbitzu hau sartu dio. EROSKI cluben fidelizazio programako 3,5 milioi pasa bazkideek aukera izango dute paperezko ordainagiriak utzi eta formatu elektronikoan jasotzekoa. Doako alternatiba bat da, eta aplikaziotik aktiba eta desaktiba daiteke. Eskura dago, halaber, [Eroski.es](#) webgunean, bazkideen soslai pertsonalaren barruan.

Ordainagiri digitalak EROSKIren aplikazioan aurkezten dira, sarean dagoen bertsio batean, informazioa eskuragarriagoa egiteko. Gainera, erabiltzaileak aplikaziotik beretik deskargatzeko aukera du PDF formatuan, eta mezu elektronikoz edo mezularitzaz igor dezake. Zerbitzu horrekin, erabiltzaileak eskura ditu beti ordainagiriak, eta erosketak kontsulta ditzake edozein momentutan eta lekutan.

"EROSKIren aplikazioan aukera honi alta ematen dionak azken urteetako ordainagiriak berreskuratu ahalko ditu, eta hori abantaila handia da, esaterako, produkturen baten garantia behar izanez gero, ordainagiria erakustea ezinbestekoa baita erosi izana egiaztatzeko. Horretaz gainera, erraza eta eroso da erosketen xehetasunak jakitea, EROSKI Club txartelean sartzen diren deskontuak, eta abar. Teknologia direla eta, gero eta kontsumitzaile gehiagok espero du guztitarako

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

kanalen bidez egitea proposamen komertzialak. Ordainagiriaren aukera berri honekin, zure erosketa esperientzia hobetu nahi dugu, erosoagoa eta iraunkorragoa izan dadin", azaldu du Marketin arloko zuzendariak, Eva Ugartek.

Arduraz kontsumitzea

Honelako erabakiekin kontsumo iraunkorragoaren aldeko konpromisoa indartzen du EROSKI. Hura martxan jarrita, paper gutxiago erabiliko da ordainleketan, eta, hortaz, ingurumenean eragin ezkor txikiagoa izango du.

EROSKI 298 milioi ordainagiri baino gehiago ematen ditu paperean urte osoan. Hori ekoizteko, 3.500 arbola bota beharra dago; hiru igerileku olinpikotako ura kontsumitzearen parekoa da hori, eta 84 familiak urte osoan kontsumitzen duten energiaren parekoa. Bezero guztiek ordainagiri digitalean alta emango balute, 239 tona pasa CO₂ gutxiago igorriko litzateke paperaren ekoizpenean.

Arduraz kontsumitzearen alde dago EROSKI, eta, ildo hori indartzeko, bisfenol A-rik gabeko papera darabil bere ordainagiritan.

EROSKI aurrera doa eraldaketa digitalean eta iraunkortasunaren bidean, eta horren lekuko da aplikazio berri hau. Hala nahi dutenek eskura dute alternatiba hori, EROSKI aplikazioa doan deskargatuta Google Playtik eta Apple Storetik, eta zerbitzua aktibatuta. Horrez gain, aplikazioaren gainerako abantailak ere eskuratu ahalko dituzte; esaterako, aurrezpen txartelak (paperik gabe) momentuan aktibatzea eta trukatzea, eskaintzak errazago aurkitzea, sakelakoarekin eta EROSKI Club Payrekin ordaintzea, erosketaren zerrenda eskura izatea, EROSKI Club txartelean zenbat diru eta Travel Club puntu dagoen jakitea, eta abar. Gainera, ordainagiri digitalaren zerbitzua eskura dago Eroski.es helbidean, eta hala bermatuta dago guztitarako kanalen esperientzia.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)